

C-5.- Euri azidoaren eragileen artean aipatuenetarikoak dira automobilen erregaien errekuntzetan sortutako nitrogeno-oxidoak. Bestalde, erregaien errekuntzak karbono monoxidoa sortzen du, ez baita erabatekoa izaten. Zer eragin dute automobilen ihes-hodietan dauden katalizatzaileek, eta zer abantaila eskaintzen diote ingurumenari?

Katalizatzaileen abantailak

Alde batetik oxidazioa (karbono monoxidoa karbono dioxidora) eragiten dute. Nahiz eta karbono dioxidoa berotze globalaren eragile nagusia izan karbono monoxidoa askoz toxikoagoa da.

Bestalde nitrogeno oxidoen deskonposaketa (nitrogenoa eta oxigenoa emateko) azkartu egiten dute eta euri azidoaren inpaktua gutxitu.